

Martxoaren 15ean
GARIZUMAKO 3. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako bidean aurrera, Eukaristiako mahaian bildu gara gure fedea elkarbanatu eta salbamen iturritik edatera.

Gure fedea indarra behar du, betirako asetzen duen ura. Hortik datoz gaurko gizon-emakumeon egarriak, Jainkoaren egiazko esperientzia egin nahi dugunon egarriak. Eta, gaur, Jesusek betiko asetzen duen ura hitz ematen digu Ebanjelioaren poza zabaldu nahian gabiltzanoi. Hurbil gaitezen Eukaristiaren iturri-ondora eta onar dezagun Jesusen ur bizia.

Damu-otoitza

Ospakizun hau hastean, eska diezaiozun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

- Jesus Jauna, gizadiaren salbamena gurutze-habeen ezarri zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, / gugatik nekaldia jasan zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu, bekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitezen / gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eraman zenituen: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko errukitsua, on guztien iturria,
baraua, otoitza eta erruki-egintzak
ipini dizkiguzu geure bekatuen sendabide;
begira bihotz onez geure ahuleria aitortzen dugunoi
eta bizkor gaitzazu zeure erruki handiaz
bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizitzan sufritzen ditugu zailtasunen aurrean, askotan galdetzen dugu Jainkoa gure alde ote dagoen. Hori gertatu zitzaion askatasun bidean zihoan herri zaharrari ere. Jesusekin benetan topo egiten badugu, konturatuko gara, Bera dela gure nekeen artean atsedean eta bizi-emaile.

Lehenengo irakurgaia (*Jr [Ex] 17, 3-7*)

Exodo liburutik

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marmarka ari zen: «Zertarako atera gaituzu Ejiptotik? Egarriz hiltzeko gu eta gure seme-alabak eta gure abereak?» Moisesek Jaunari hotsegin eta esan zion: «Zer egin behar dut herri honekin? Harrika emango didate laster».

Jaunak Moisesi: «Jar zaitetz herriaren aurrean, eta eraman itzazu zerorrekin Israelgo zahar batzuk; hartu eskuan, ibaia jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Ni zure aurrean egongo naiz, Horeb mendiko harkaitz gainean. Zuk harkaitza jo, eta ura sortuko da handik, eta edango du herriak».

Hala egin zuen Moisesek, Israelgo zaharren aurrean. Eta toki hari Masa eta Meriba ezarri zion izen, israeldarren hango haserreagatik eta han tentatu zutelako Jauna, esanez: «Gure artean al dago Jauna, bai ala ez?»

Erantzun-salmoa (*Sal* 94, 1-2. 6-7abc. 7d-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na - ren min - tzo -
a: "Ez go-gor - tu zu-en bi-ho - tza".

Zatozte, pozez oihu degiogun **Jaunari**,
txalo degiogun salbamen dugun Hark**aitzari**.
Hurbil gakizkion aurrera esker-kant**u**ekin,
jai degiogun txalo eta eres**ie**kin. R/.

Zatozte, ahuspez jaurets **de**zagun,
egin gaituen Jaunari belaunika gak**iz**kion.
Bera baita gure Jainkoa, '
gu, berriz, Haren larreko **he**rria,
Haren zainpeko art**al**dea. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren **mint**zoa:
«Ez gogortu zuen bihotzak Meriban **be**zala,
Masa-egunean basamortuan bezala. '
Zuen gurasoek han zirikatu **nin**duten,
Nik eginak ikusi arren, tentatu **nin**duten.» R/.

Bigarren irakurgaia (Erm 5, 1-2. 5-8)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Fedearen bidez zuzentasuna iritsi dugunez gero, bakean gaude Jaungoikoarekin, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Berari esker zabaldu zaigu, sinesmenaren bidez, bizi garen grazia honetarako sarrera, eta harroturik gabiltza Jainkoaren seme-alaben aintzaren itxaropenean.

Itxaropenak ez du hutsegiten; Jaungoikoaren maitasuna gure bihotzetara isuria bait dago, eman zaigun Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, oraindik indargabe geundela, Kristo, bere orduan, gaiztoen alde hil zen. Nekez hil daiteke norbait gizaki zuzen baten alde; gizaki on baten alde, baliteke norbaitek hil nahi izatea.

Baina, honetan erakusten du Jaungoikoak guretzat duen maitasuna: gu bekatari ginelarik, Kristo gure alde hil bait zen.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Jn 4, 42c. 15b)



Jauna, Zu zara egiaz munduaren Salbatzailea;
emadazu ur bizia, egarri ez nadin.

Ebanjelioa (Jn 4, 5-42)

Homiliarako argibideak

Jesus aurkitzearen poza

Jesus aurkitu duenak ezkutatu ezineko poz handia sumatzen du bere baitan. Besteei jakinarazteko, besteekin partekatzeko beharra sentitzen du. Berarekin topo egin dutenek Kristoren misiolari izateko beharra sentitzen dute, Hura baita bere pozaren iturria. Igande honetan ezagutzen dugun pertsonak ez du izenik, samariar emakume bat dela bakarrik dakigu (*Jn 4, 5-42*). Jesus pixkanaka ezagutzen duelarik, fededun izatera iritsi zen, bere lurraldean misiolari izateraino.

Jesus bere bizitzara iristean zurrunbiloa sortu zuen emakume harengan. Basamortuko herria egarri zen moduan (*Ir 17. 3-7*) bera ere egarri dela konturatzen da emakumea. Egarririk da. Egarririk horrek ur bila joatera bultzatzen du egunero, baina bere egarririk ez da inoiz asetzen. Ur biziaren promesa entzutean, bihotza zabaltzen zaio eta bere izatearen errealitateaz jabetzen da: **maitasun egarri** den bizitza, senar askorengan maitasuna bilatu duena.

Elkarrizketan Jesus profeta dela sumatzen du eta horrek haraindikotasunaren (trazendentziaren) bidea irekitzen dio. Baina non aurkitu Jainkoa? Non gurtu? Gizakien iritzi kontrajarriek noraeza sortzen dute. Jesusek garbi ikusarazten dio. Jainkoa Espiritua da eta espirituz eta egiaz gurtu behar da. Kontua ez da "non" gurtu, "nola" gurtu baizik. Gure egarririk Espirituak bakarrik ase dezake, Jainkoak berak gure bihotzetan isuri duen maitasunaren Espirituak (*Erm 5, 1-2. 5-8*).

Emakumeak ere itxaro zuen Mesiasen etorrera, guztia argituko zuen Kristoren etorrera, alegia. Eta harriturik geratu zen, Mesias hori Jesusengan aurkitzean. Bizitza goitik behera aldatu zitzaion. Urontzia utzi eta bere herriarentzat **misiolari** bihurtzen da. Poz handia izan denean, nola gorde besteei kontatu gabe! Bere herrikideek ez dute geratu nahi Mesias ezagutu gabe. Jesusengana joan eta han geratzeko eskatzen diote. Haielik ere Jesusengan sinetsi

zuten: emakumearen testigantzagatik batzuk, beraiek Jesus aurkitzearen bizipena izan zutelako besteek. Ez dute Jesusi buruz entzun bakarrik egin; Berari entzun diote eta munduaren Salbatzailea dela konturatu dira.

Pixkanakako bidea izan zen emakume samariarrak eta bere herrikoek egindakoa. Ezinbestekoa izan zen Jesus onartzea, Hari entzutea, beraien bizitzak Jesusen argitan aztertzea. **Fedearen ibilbidea** da hori: giza bihotzetan dagoen Jainko-egarriaz jabetu eta geure baitako galderentzat erantzuna bilatzera garamatzana. Gure izatearen misterioa argitu eta bere espiritua ematen diguna ezagututa nola ez hartaz fidatu. Jesus ezagutzeaz ez gara nekatzen. Bera da profeta, Mesias, munduaren Salbatzailea. Eukaristian Berarekin aurkitzeak lagun diezagula Haren misterioa pixkanaka-pixkanaka ezagutzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Basamortuan otoitzari emana bizi izan zen Jesus gure Jaunaren ereduari jarraituz, egiogun otoitz guk ere aspergabe Jainkoari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Fededun guztiak, Garizumako penitentzi eta ekinaldien bidez, beren erruetatik garbituak eta kristau bizitzan sendotuak izan daitezten. Egigun otoitz. R/.

—Herri guztiek iris dezaten beharrezko bakea baretasuna eta ongizatea, era horretan zeruko ondasunak errazago bila ditzaten. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak, tentatuak edo minduak direnei indarra, bekatariei bihotz-berritzeko gogoia eta triste eta atsekabetuta daudenei barne-poza eman diezazkien. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak bihotz-berritzeko egiazko gogoia gugan sorraraz dezan, pazko-sakramentuak ospatzeko behar bezala presta gaitzen. Egigun otoitz. R/.

On guztiaren iturri zaren Jauna, zuk eskaintzen diguzu Kristo gure Salbatzaile eta Harkaitzari darion graziaren ur bizia; entzun gure otoitzak eta emaguzu zure Espirituaren dohaina, gure fedea ausardiaz ager dezagun eta pozik hots egin diezaiegun gure senideei zure maitasunaren harrigarria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako III. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 178. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko salbamenaren agiria da, Jauna,
lur honetan jadanik,
hartu dugun zerutar ogia;
egizu, orain sakramentuz ospatu duguna
egintzetan bete dezagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Gida ezazu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta eman errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 643. or.).

Oharra

Ohartarazi osteguna, San Jose eguna dela, jaieguna. Mezen ordutegia eman ez eta egun horretako diru-bilketa Elizbarrutiko Misioetarako izango dela gogoraraziz.